

{ José de Basterrechea
Calle Sangüesa 13, 1º, izda. } *Mere adresa*
Pamplona

Iruñean, 1962-XI-10

Aita Pierre Lafitte
Baiona

Jaun agurgarria: Adiskide agurgarria izkiriartzeko egon naiz, baina eztaikit nitzaz orhoituko othe zaran. Urthe batzu dirala, Angel Irigaray jaunak elkar presentatu ginun Baionan, Musée Basque delakoan. Liburu bat egiten ari nintzala erran nizun orduko elkar-hizketa laburran, eta izen-ordetzat Oskillaso hartuko nuela.

Eztut oraino bukatu orduan aipatu nizun liburua (EUSKARA OSOTUA izanen du titulutzat) lan asko egin badut ere, baina beste liburutto bat, KURLOIAK argitaratu dut. Guthun hunekin batera hiru ale bidali dizkitzut postatik, bata zuri dedikatua eta besteak Gure Herriaren zuzendariarentzat eta Eskualtzaleen Biltzarreko presidentearentzat. Eman ezaiezu mesedez nere goraintziekin okasionea ethorten zaizunean.

Zeintzu diran nere asmoak eta zertan ari naizen jakin dezazun, erderazko bi artikulu bidaltzen dizkitzut, bata "EL Pensamiento Navarro", hemengo egunkari batean azaldua, eta bestea Donostiko "La Voz de España"n argitaratuko dana.

Zure laguntza eta Gure Herriarena indar asko emanen lioke nere asmoari eta zorion handia litzake neretzat, baldin atseginekin onartzen bazenuteke.

Aspalditik nabil Gure Herria hartu nahirik, eta orai direla bi urthe edo, bi mila libera eman nitun horko denda batean ("La Cloche" edo hunelako izen bat zuan) urthe betheko har-bidearen ordaintzeko, bainan alperrik, eztidate bidaldu. Nere liburuari buruz zer-bait publicatuko balitz Gure Herrian, sentiduko nuke ez irakurtzea. HERRIA, zure asteroko atsegingarria, aste guztietan hartzen ÷dud.

Har ezazu Lafitte jauna nere bihotzetiko agurrik beroena

A. Bastenechea

P.S. Erderazko artikulu hoik ere eman ezaiezu mesedez Dassance jaunari irakurten dituzunean. Mila esker.